



HONDAKINAK

Eskolako Agenda 21
DEBABARRENA
2018-2019



HONDAKINAK



anaitasuna ikastola

Ermua



UDALBATZARRA

2019ko ekainak 6



Eskolabarri

Ikastetxea





HONDAKINAK

Eskolako Agenda 21
DEBABARRENA
2018-2019



ONGARAI ESKOLA

Kaixo: gu, Ainhoa, Mayka, Asier eta Aner gara, 5. eta 6. mailatako ikasleak, eta Ongarai eskolatik gatoz.

Egindako lanen artean, gure herriko kaleetako eta parkeetako garbitasuna aztertu dugu. Aurkitu dugun **arazo bat** lorategietan eta lurrean txakur kaka egon dela izan da. Gure eskolarako bidean sarritan egoten da.



Gure **konpromezuak** hauek dira: Txakurra daukagunok bere kaka beti jasoko dugu. Beste alde batetik, txakurra daukaten senideei eta lagunei gogoratuko diegu.

Proposamenak: Txakurra dutenei txartel berezi bat eman (errefusa eta organikoarenaren modukoa) eta kakak biltzeko poltsen makina bat ipini, txartel horrekin poltsak dohainik hartu ahal izateko. Honekin uste dugu jende gehiago animatuko dela txakurren kaka jasotzera.



HONDAKINAK

Eskolako Agenda 21
DEBABARRENA
2018-2019



ONGARAI ESKOLA

Egindako beste lan bat herriko zakarrontziak nolakoak diren eta jendeak nola erabiltzen dituen aztertzea izan da. Ikusi ditugun zakarrontzi guztiak gure eskolako patioetan daudenen antzerakoak dira eta jendeak mota guztietako hondakinak botatzen ditu bertara. Batzutan lurrera ere, zakarrontziak erabili gabe.



Arazoa, jendea birziklatu ahal diren hondakinak sailkatzearen garrantziaz jabetzen ez den bitartean, hondakin horiek errefusara joaten direla da.



HONDAKINAK

Eskolako Agenda 21
DEBABARRENA
2018-2019



ONGARAI ESKOLA

Gure **konpromezuak** hori gerta ez dadin hauek dira:

- Pipa azalak, txikleak, gozokien bilgarriak, etb. ez digutu lurrera botako.
- Hondakin mota bakoitza dagokion edukinontzira botako dugu eskolan, kalean eta etxean.
- Hondakinak sailkatzen ez dakitenei laguntzeko prest egongo gara.

Eta herriko egoera hobetzeko gure **proposamena**, herrian zehar eta eskoletako patioetan hondakinak sailkatzeko zakarrontziak jartzea edo daudenak egokitzea da. Eta hauetan azalpen-kartelak eta mankomunitateko App-aren berri ematea.





HONDAKINAK

Eskolako Agenda 21
DEBABARRENA
2018-2019



ONGARAI ESKOLA

Egindako beste lan bat:

Eskolan hondakinak sailkatzen ditugu.

Ikasturte honetan organikoaren ontzia gehitu diegu urdinari, horiari eta errefusarenari.



Daukagun **arazoa**, edo hobetzea gustatuko litzaiukena hau da: Kaleko edukinontzietara bildu duguna eramaterakoan, batzuk hurbil daude, baina beste batzuk nahiko urrun geratzen zaizkigu eta gainera aldapan gora joan behar dugu.





HONDAKINAK

Eskolako Agenda 21
DEBABARRENA
2018-2019



ONGARAI ESKOLA

Hartzen ditugun **konpromezuak** hauek dira:

- Hondakinak ahalik eta hoberen sailkatzen jarraituko dugu .
- Zerbait ez dakigunean ondo informatuko gara, adibidez mankomunitatearen App-an.
- Etxean ere familiakoei gogoratuko diegu birziklatzearen garrantzia eta ondo egiten lagunduko diegu.

Proposamena:

-Behar diren edukinontziak (marroia, grisa, urdina eta horia, gure kasuan)

eskola guztietatik gertu eta elkarrekin jartzea,
hauen ondoan hondakinak nora bota behar direnaren
kartel bat ipiniz. Herrian zehar dauden edukinontziak ere,
mota guztietakoak elkarrekin egotea
jendearentzat lagungarria dela uste dugu.





HONDAKINAK

Eskolako Agenda 21
DEBABARRENA
2018-2019



Udalaren erantzuna

Ermua



UDALBATZARRA

2019ko ekainak 6